

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

KOMUNIKAZIO GAITASUN INDIBIDUALAREN GARAPENA ARTEAREN BITARTEZ: MATERIAL PLASTIKOEKIN ESPERIMENTATZEN

Egilea: Lia Ojanguren Zabaleta

Zuzendaria: Miriam Peña Zabala

Leioan, 2018ko maiatzaren 28an

AURKIBIDEA

Sarrera.....	3
1. Marko teorikoa	4
1.1. Komunikazioa eta gaitasun komunikatiboa.....	4
1.2. Gaitasun komunikatiboa gizarteratzeko.....	4
1.3. Arte plastikoak hezkuntzan.....	6
1.3.1. Arte plastikoak komunikatzeko tresna lez.....	7
1.3.2. Zentzumenen arteko sinergiak arte adierazpenean.....	8
2. Metodologia.....	9
2.1. Laginaren deskribapena	10
2.2. Tresnaren deskribapena	10
2.3. Lanaren atalak.....	11
3. Lanaren garapena.....	12
3.1. Proposamenaren justifikazioa	12
3.2. Helburuak.....	13
3.3. Esku-hartzearen prestaketa aldia.....	13
3.3.1. Jarrera pedagogikoa.....	13
3.3.2. Esku-hartzearen faseak	13
3.4. Esku-hartzearen gauzatze aldia.....	15
4. Emaitzak	18
5. Ondorioak	20
6. Erreferentzia bibliografikoak.....	22
ERANSKINAK	24

KOMUNIKAZIO GAITASUN INDIBIDUALAREN GARAPENA ARTEAREN BITARTEZ

Material plastikoekin esperimentatzen

Lia Ojanguren Zabaleta

UPV/EHU

Adierazteko beharra nabaria izan da historia osoan zehar, norberaren mundua eta bakoitzaren kanpoaldearen interpretazio bakarra adierazteak, gizaki oren beharrian bat da askotan ahaztuta gelditzen dena Hezkuntza Formalean. Lan honen bitartez, komunikazio gaitasun indibidualaren garapenak hezkuntzan duen egoera eta hau artearen bitartez lantzeko abantailak ezagutu nahi izan dira. Gai biei buruzko informazioa aztertu ostean, artea adierazpena lantzeko baliabide ona izan zezakeela erakutsi nahi zen esku-hartze batekin. Hau aurrera eramateko, Lehen Hezkuntzako talde bat behatu, esku-hartzea diseinatu eta garatu, eta helburuei lotutako emaitzak jaso izan dira.

Lehen Hezkuntza, Arte Hezkuntza, Komunikazioa, Esku-hartzea, Eskola

Durante toda la historia la necesidad del individuo de expresarse ha sido notoria, dar a entender el mundo propio y la interpretación única que cada uno tiene del mundo exterior, es una necesidad del ser humano que muchas veces es olvidada en la Educación Formal. Mediante este trabajo, se quiso conocer la situación que tiene el desarrollo de la competencia comunicativa en la educación y los beneficios que conlleva desarrollarla mediante el arte. Después de analizar la información recogida, se quiso demostrar que el arte sería un recurso útil para trabajar la comunicación. Esta propuesta se ha llevado a cabo después de observar a un grupo de Educación Primaria, adaptando el contenido en torno a las necesidades identificadas y proponiendo actividades artísticas.

Educación Primaria, Educación Artística, Comunicación, Intervención, Escuela

Throughout the history the need of communication from the human has been notorious. Leading the society to believe someone's own world and the personal view of it, is a human need often forgotten in the Formal Education. This project wanted to show the situation of the communicative competence development in education and the advantages of using arts to put it into practice. After analysing the information about both topics, I wanted to demonstrate the usefulness of arts to develop the individual expression through a didactic intervention. This design was done after observing an Elementary School class, identifying their needs, adapting the content and suggesting art activities to fulfil the purpose mentioned before.

Elementary Education, Arts, Communication, Intervention, School

Sarrera

Betidanik gustatu zait marraztea, pintatzea eta eskuekin lan egitea. Ikasle lez, eta baita nire denbora librean ere, orduak eman ditut irudiak, eskulturak, etab. egiten, baita argazkiak ateratzen ere. Hau izan da nire komunikatzeko era askotan. Orain, irakasle lez, ariketa berdinak erabiltzen ditut ikasleekin komunikatzeko eta beraiekin lan egiteko. Hobeto espresatzen naiz buruan daukadan guztia fisikoki islatuz eta uste dut ikasleek hobeto ulertzen dutela irakatsi nahi didana. Ez dira ikusle hutsak, nirekin ekiten dutelako kontzeptu berriak ulertzeko.

Suitzako Pädagogische Hochschule St. Gallen-ek eskainitako beka bati esker 2016/2017-ko ikasturtea bertan eman nuen ikasten. Han, bertoko ikasleekin joaten nintzen klasera, praktikak egin nituen bertoko eskola txiki batean eta hango familia batekin bizi nintzen. Beraz, esan dezaket nahiko murgilduta nengoela bertako kulturaren. Horri esker, ikusi ahal izan nuen zer-nolako bizimodua daramaten eta nolako hezkuntza eskaintzen duten. Fakultatean, sormenari eta kreatibitateari garrantzi handia ematen zitzaien; eraikin oso bat zuten Arte Hezkuntzako laborategiei zuzenduta; bertan, ikasleek edozelako materialak eta haiekin lan egiteko punta-puntako teknologiak eskura zituzten jostailuak, txotxongiloak, mahai-jokoak edo haien burura etortzen ziren gauza guztiak diseinatu eta eraiki ahal izateko. Hasieran, oso harrিতuta gelditu nintzen eta galdera bat etorri zitzaidan burura: gero, guzti hau praktikan jarri ahalko dute irakasle lez? Laster jaso nuen erantzuna: bai. Praktikak hasi nituen eta jarduera guzti haien lekuko eta parte-hartzaile izan nintzen. Ikasleek bazekiten materialak manipulatzeko gura zutena sortzeko. Ikasleak nahi zuen guztia transmititu zezakeen erabakitako koloreekin, formekin eta materialekin.

Lan honen bidez Arte Hezkuntzak ahalbidetzen dituen material plastikoekin kontaktuan hezteko garrantzia azpimarratu nahi da haur bakoitzaren komunikazio-gaitasuna garatzeko xedearekin. Horretarako, lehendabizi hainbat autoreen lanei buruzko informazioa bildu da eta ondoren, esku-hartze bat proposatu da Lehen Hezkuntzan gaitasun hau, Arteak ahalbidetzen dituen baliabide plastikoekin esperimentatuz garatzeko.

1. Marko teorikoa

1.1. Komunikazioa eta gaitasun komunikatiboa

Komunikazioaz hitz eginez, Elkar argitaletxeko Hiztegi Entziklopedikoak (2003) komunikazioa “bi pertsona edo gehiagoren arteko harremana” eta “bi puntuen arteko datu-transmisioa” lez definitzen du. Hau da, komunikazioa, informazioa, sentimenduak edo esanahia duen edozer trukatzeko prozesu soziala da. Komunikazio hitzaren definizio ugari daude Wilsonena (1975) hedatuenetarikoa izanik: “Acción por parte de un organismo que altera la probabilidad de comportamiento de otro organismo, de modo adaptativo, o bien para el emisor o para ambos, emisor y receptor” (366.or.).

Konpetentzia edo gaitasun komunikatiboa oster, pertsona bati, era egokian komunikatzeko gaitzen duten trebetasunen multzoa da. Hymesek (1971) definitu zuen kontzeptu hau eta bere hitzetan, gaitasun komunikatiboa “noiz hitz egin, noiz ez, zertaz hitz egin, norekin, noiz, non eta nola” jakiteak suposatzen du. Inguratzen gaituzten faktoreak analizatu ahal izatea eta horren arabera erregistro bat edo beste bat erabiltzea, alegia. Etengabe elkar eragiten gabilza eta ezin diogu adierazteari utzi. Hortaz, gaitasun honek garatzea ezinbestekoa da gizartean integratzeko, hots, gure garapen pertsonal eta sozialerako.

“No siempre encontramos las palabras precisas, la forma de hacernos entender o de transmitir aquello que deseamos transmitir, incluso de transformar en palabras lo que pensamos o sentimos” (Sánchez Cuevas, 2015, 1.or.). Askotan, gure barruan dugun guztia senideei, lagunei edo irakasleei adierazteko zailtasunak ditugu, gaizkiulertuak gertatzen dira eta frustrazioa agertzen da.

1.2. Gaitasun komunikatiboa gizarteratzeko

Adierazteko, besteei sentitzen duguna komunikatzeko beharra nabaria izan da historia osoan zehar. Bakoitzaren adierazteko askatasuna eta kulturaren parte-hartzea gizaki guztien eskubide lez aitortu beharko litzateke. Norberaren barne-mundua eta bakoitzaren kanpoaldearen interpretazio bakarra adierazteak, gizaki ororen beharizan bat da. Adierazpen hori indartzea, jaioberritan negar egitearekin hasten dena, komunikazio sozial handiago baterako bideak eskaintzea da.

Komunikazioa izaki bizidunen artean ematen den ezaugarria da. Animalien munduan, adibidez, komunikazioak berebiziko garrantzia hartzen du ugalketan, elikaduran eta harrapakarien aurreko defentsan. Mekanismo honen baliagarritasuna eta ordezkazintasuna kontuan hartuta, ez da harritzekoa era independentean talde anitzetan agertu izana historian zehar. Gorteatze kantuak, lurralde baten xakitzea, arrasto kimiko eta bisualak elikagai iturrietara, alarma seinaleak arrisku egoeretan edo harrapakariengandik defendatzeko, edozein animalia-taldeko bizitzan beharrezkoa den komunikazioaren adibide batzuk baino ez dira.

Nahiz eta komunikazioa hainbat izaki bizidunen artean gertatu, gizakietan ematen diren adierazpenetan zentratuko naiz. Izan ere, gure artean komunikatzeko ahalmena da gaur egungo gizarte garaikidera heltzera lagundu duen gaitasun aipagarrienetariko bat. Hainbeste izan ziran gizakiak sentitutako beharrianak munduarekin elkar eragiten hasterakoan, beti bere arazoei soluzioak bilatzen egon zela; sua aurkitu zuenean, ohartu zen hotzetik babesteko balio zuela, baita animaliak izutzeko ere, zuhaitzetatik elikatzeko fruituak hartu zezakeela ere ikasi zuen eta animalien larrua bere azala estaltzeko erabili zitekeela. Gauza batzuk aurkitu behar zituen eta beste batzuk agertoki naturalaren parte ziren. Gauza asko falta lekizkieke, baina garrantzitsuenetariko bat eta garapenezko maila gorenentara eramango ziona, lengoia eta komunikazioa zen. Horregatik, komunikazioa lurraren eboluzioa bezain zaharra da.

El hombre desde su origen sintió la necesidad de comunicar sus emociones, sensaciones, preocupaciones acerca del mundo que le rodeaba para poder enfrentar mejor la realidad que desconocía. Comenzó a hacerlo a través de gestos, sonidos, señales de humo, tambores y pinturas (Cueto Zayas, 2011, Z.G.).

Giza komunikazioak garrantzi nabarmena izan du mendeetan zehar gizakiak batzeko existitzen den modu gisa. Lorpen historiko askotan batasuna izan da faktore garrantzitsu bat. Hau ez da iraganean soilik nabarmentzen, baizik eta egun ere ikusi daiteke. Izan ere, askotan zaila da xedeak lortzea inongo batasunik gabe. Batasun hau lortzeko komunikazioak bitartekari lana egiten duelarik.

La comunicación es el proceso que representa la expresión más compleja de las relaciones humanas, a través de ella el hombre sintetiza, organiza y elabora toda la experiencia y conocimiento humano, luego lo transmite de individuo a individuo utilizando como vía el lenguaje (Hymes, 1971, 27.or.).

Giza garapena ez da ematen bizikidetasunik gabe. Eta bizikidetasuna ez da ematen komunikaziorik gabe. Savaterren ustez (1997) munduan egotea, gizakien artean egotea

da, gizartean bizitzea, onerako, ez hain onerako eta txarrerako ere. Nahiz eta bizikidetzarako prest jai, hura ahalik eta kalitate hobegokoa izateko, pertsona hiritarren hezkuntza garrantzitsua da. Horregatik, hiritartasuna txikitatik ikasia eta irakatsia izan behar da. Heziketa dimentsioan, hiritartasuneko praktketan eta haren baloreetan eragina edukitzea bilatzen da eta horren barruan faktore garrantzitsuenetariko bat pertsonen arteko komunikazioa eta banakako komunikazio gaitasuna da.

Aurrean esan bezala, gaitasun honek haurtzarotik lantzea beharrezkoa da. Izan ere, aproposena da era natural batean garatzeko eta gure ingurugiroarekiko egokitzapena ezin hobea izateko. Komunikazio esanguratsu eta eraginkor batek gure harreman pertsonalak hobetzen ditu, baita gure ongizatea ere. Trebeak garenaren sentimendua ematen digu eta honek pertsona bakoitzaren barne-motibazioa pizten du. Hau honela, funtsezkoa da gaitasun honek hezkuntzan sartzea. Lortzen badugu umeak arazorik gabe komunikatzeko gai izatea, pertsona autonomoak, erabakitzaileak eta asebetekak izango dira (Arranz, 2017).

1.3. Arte plastikoak hezkuntzan

Komunikazio gaitasunaren adiera guztiak kontuan hartuta artearen potentzialitatean jartzen du arreta lan honek. Arte Hezkuntza irakasgaiak, alderdi asko garatzeko aukera ematen du: sormena, irudimena, autonomia, norberaren adierazpenaren garapena, emoziozko adimenarena eta komunikatzeko eta gizarteratzeko ahalmenarena, beste askoren artean (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa saila, 2010). Gainera, bizitzako alderdi ezberdinetan eragina duten gauzekin lan egiten du (irudiak, musika, etab.). Umeek haien eguneroko bizitzan jasotzen duten informazio asko ikus kulturarekin lotuta dago, beraz, informazio hori ulertzeko, analizatzeko eta erantzun bat eman ahal izateko prestatuak izan behar dira eskoletan. Hortaz, arte hezkuntzak, komunikazioa bezalako konpetentzia hiritarren garapenean lagundu dezake (Rodríguez, 2005).

“Ekoizpen artistikoak, gure errealitateari buruz hitz egiten duten heinean, imajinario hegemonikoaren alternatiba izan daitezke eta prozesu hezitzailean eduki eta zeharlerroak lantzeko bitarteko baliagarriak bilakatu” (Arrizabalaga eta Revuelta, 2010, 10.or.). Ekoizpen artistikoak hezkuntza hautabide posiblea izan daitezkeela uste dute.

Gainera, gure izaera osatzen duten alderdien inguruko (adina, generoa, arraza edo kultura, beste askoren artean) hausnarketa sustatzeko tresna aparta dela diote.

Historikoki, artea komunikatzeko era ezagun bat izan da. Montserratek (2017, Bajacek, 2017 aipatua) esaten duen bezala, zentzu zabal eta orokor batean esan dezakegu artea, edozein jarduera ondo egina dela, teknika, gaitasun, ezaguera, sentsibiltate, interesa, nahia eta dedikazioa eskatzen duelako.

Aunque actualmente la justificación de las funciones de las artes se desarrolla también en el dominio de la estética, la filosofía, la psicología, la sociología cultural o la antropología, sería preciso señalar que está construida sobre la apreciación que históricamente las artes han tenido como formas de expresión, representación y comunicación de los valores y visiones de la experiencia humana (Abad, 2009, 17.or.).

1.3.1. Arte plastikoak komunikatzeko tresna lez

Ohikoa da haurtzaroan zehar espresio plastikoen bidez komunikatzea, bai familietan bai eskoletan agizko ohitura delako: umeari arkatza eta papera ematea espresio bideak ezagutzeko. Ondoren, plastilinak agertzen dira, honek jateko arriskua ez dagoenean, margoak eta, aurrerago, idatzizko tresna formalagoak. Hezkuntza formalean, horrela inizatzen dira gaur egungo umeak arte plastikoetan.

Eskolan gutako askori txirula jotzen irakatsi ziguten, jarraibide gutxirekin: non eta nola ipintzen diren hatzak, nola jo behar den nota bat edo bestea ... Eta, ia beste ezer gabe, gure melodia ulergarri bihurtzen da. Baina, hatzak posizio zehatz batean jarrita, sol edo re jotzen ditugula erakutsi izan ez baligute? Nik bakarrik ez nukeen sekula asmatuko (Obergozo, 2010, 10.or.).

Bada, Obergozok uste du horixe dela marrazketarekin gertatzen dena hezkuntzan. Orokorrean irakasleek ez digutela jarraibiderik eman nora eta nola begiratu behar dugun edo zeri erreparatu behar diogun ikuspegi dibergente batetik, baizik eta gidatutako erreferenteak erabili dira eredu gisa eredu logozentrista (Agirre, 1998) gailenduz. Errealitatea bera da guztiontzat, baina identifikatzen eta interpretatzen jakin behar dugula uste du.

Ume batek bere inguruarekiko duen jarrerari erreparatzen badiogu, ikusi dezakegu zenbat interesatzen den ingurune hori ezagutzeagatik. Jakin-min hori zabaldu egiten da guztia ukitzetik, guztia esperimendatzen joateari eta gauza guztien posibilitateak eta berezitasunak batzeari. Gizaki guztien sortzetiko behaketa-dohainak sustatzeko bide bat, behatzen duena plastikoki finkatzeko aukera ematea da. Behatzeko ardura inkontziente

horrek, murgilduta sentitzen den munduaren barruan parte hartzera eramango dio, jarrera kritiko batetik, nahiz integratzaile batetik, hau da, bere “nia” kanpo-mundu horretan sartuz, bere “nia” kanpoaldeari komunikatuz.

Jarraibide horiek izatea mesedegarria da inguratzen gaituenari epaitu gabe begiratzeko eta gauzak zehaztasun gehiagorekin ikusteko. Eta era berean, baita marraztu ahal izateko eta marrazkiaren bidez ikusten duguna zentzurik eta zabalenean interpretatzeko ere.

Hau aurrera eraman ahal izateko umeei aukerak eskaini behar zaizkie hezkuntzan: materialak ezagutzeko, haiekin esperimentatzeko, manipulatzeko eta barruan daukatena artistikoki islatzeko. “Jolasean, umeei objektuak manipulatzeko dituzte, euren ezaugarriak eta funtzioak esploratzen dituzte, modu originaletan erabiltzen dituzte, adibidez, haurraren sormen eta irudimenetik sortzen diren errealitate ezberdinak irudikatuzeko” (Jorge, 2017, 8.or.). Horrela, haien komunikazio gaitasun indibiduala hobetzeaz aparte, kolektiboa ere hobetu daiteke.

1.3.2. Zentzumeneren arteko sinergiak arte adierazpenean

Jarduera artistikoen bidez, haurraren zentzumenerak landu eta garapen pertzeptiboa ere sustatzen da. Espazioa, formak, koloreak, ehundurak, soinuak, sentipenak eta esperientzia bisualak adierazpenerako estimulu anitzak dira.

Estimulu horrek kanpotik jasotako informazioarekin agertzen dira, adibidez: soinu bat entzuterakoan, koloreak, itxurak eta mugimendua ikusten direnean edo emozio bat bizitzerakoan kolore jakin batekin erlazionatzen denean. Eta, zer gertatzen da zentzumeneren arteko sinergiak bilatu edo gertatzen direnean?

Hau, pertsona sinestesikoekin gertatzen dena da. “La sinestesia es un fenómeno fisiológico normal que presentan algunas personas mediante el cual tienen dos sensaciones sensoriales y simultáneas a partir de un único estímulo” (Ferner, 1812, Sarabiak, 2016 aipatua). Pertsona sinestesiko batek soinu bat entzuterakoan automatikoki kolore bat ikusi dezake, usain bat igarri edo dastamenarekin eta ukimenarekin erlazionatutako zentzazio bat nabari dezake. Zientzialariek fenomenoak ikertzen dabilta, lagungarria baita zentzumeneren eta pertzepzioaren mekanismoak

hobeto ulertzeko. Galarragak (2016) Barrechegune Bartzelonako Unibertsitateko neurozientzien irakaslea aipatzen du, sinestesia ikertzeak zentzumenak hobeto ezagutzeko zantzuak ematen dizkiguzala esateko. Beraz, sinestesiak sortze prozesu kreatiboan lagundu dezake?

Asko dira galdera honi baiezko erantzuna ematen dioten pertsonak. Besteak beste Zedler-ek (2009, Salasegatik, 2015 aipatua) esaten du sinestesiak sormena ahalbidetzen eta indartzen duela. Salas-en tesian (2015), Córdoba-ren (2014) baieztapenak aurkitu ditzakegu ere:

Lo principal es que el sistema educativo actual cambie, y como decía, recupere la visión aristotélica: educar por los sentidos. Si se preserva la condición natural sinestésica que todo niño tiene, puede usarse para el desarrollo integral y creativo del niño, potenciando todas sus inteligencias... Y todo lo que sabemos del mundo, nos entra por los sentidos. No podemos obviar su poder en nuestro desarrollo y aprendizaje (54.or.).

Cordobak esaten du sormenak arlo askotan aurrerapauso handiak ematera bultzatzen gaituela eta hau kalitate hobegokoa dela sinestesiarekin ematen denean. Izan ere, sinestesiak errealitate ezberdinekiko ikuspegi berria eta zabalagoa ematen digu, gure lana aberastuz. Horregatik, Arte Hezkuntzan lantzeko gai aproposa izan ahalko litzateke, horrela norberaren barne-munduaren komunikazioa ahalbidetuz.

La Ciencia, el Arte, la tecnología, la filosofía, tienen su fundamento en esta cualidad humana que implica la transformación de lo que existe. Y definida como un proceso que genera algo material estético, conceptual, etc., transformando o trascendiendo lo que ya existe, comprende tres fases: La primera fase de asociación e integración perceptual, sensorial, cognitiva y afectiva en la que intervienen varios grados de consciencia, proceso denominado como ‘iluminación’; Una segunda fase de elaboración, donde la persona trabaja con esas asociaciones construyendo una obra, valiéndose de su talento y habilidades. Esta fase es consciente. La última fase es la Comunicación, la que culmina el proceso y al mismo tiempo inicia nuevos procesos, haciendo que sea contagiosa. (Córdoba, 2008 Salasegatik, 2015 53.or. aipatua).

2. Metodologia

Behin gaiaren inguruko bilaketa teorikoa eginda, lan honek esku-hartze bat egitea du helburu. Esku-hartzeak egitea ikasleak ikastea ahalbidetzen du, parte-hartzaileek bizipen praktikoarekin harremanean ikasten baitute. Beraz, ikerketa baten egindako datu-bilketa bati esker ateratako ondorioekin esku-hartze bat diseinatzea erabaki da.

2.1. Laginaren deskribapena

Aztertutako taldea 26 umez osatuta dago, Lehen Hezkuntzako 4. mailan dauden 9-10 urte bitarteko neska eta mutilak, alegia:

- 9-10 urte bitarteko adina dute. Hala ere, guztien garapena ez da berdina; bai akademikoki, bai sozialki eta bai pertsonalki, alde nabarmenak daude ikasleen gaitasunen artean.
- Gaitasun sozialari dagokionez, klasean badaude desoreka batzuk ikasle batzuen heldutasun mailan. Klase nahiko heterogeneoa denez, haien artean komunikazio gaitasuna lantzeko beharra badago.

2.2. Tresnaren deskribapena

Lehenik eta behin, laginaren komunikazioari buruzko aurre-ezagutzak metodologia kuantitatiboaren bitartez ebaluatu dira horretarako diseinaturiko aurre-test batekin [ikusi 1.go eranskina].

Ondoren, Arte Hezkuntzaren egoera gela barruan behatu da, behaketa asistematikoa jarraituz. Klaseko arte-proposamenak zer-nolakoak diren eta horiek komunikazio gaitasuna sustatzeko aproposak diren ala ez ikusteko erabili da behaketa hau. Datu-bilketa horren emaitzak jasota eta marko teorikoko ideiak kontuan hartuta, esku hartzea diseinatu da.

Jasotako produkzio grafikoak eta parte-hartzaileen iradokizunak planteatutako helburuekin alderatu dira. Datu guztiak jasota emaitzak eta ondorio batzuk azaleratu dira.

Esku-hartzea, modu praktikoa baten Arte Hezkuntzako proposamen batek komunikazio gaitasuna indartzeko balio duen ala ez erakusteko egin da. Norberaren komunikazio gaitasuna eta arte plastikoak uztartzeko hainbat saio diseinatu dira, bata bestearen giltza direnak.

Amaieran, ebaluazio eta emaitzen adierazle gisa, erakusketa bat egin da, modu orokor batean proposamenaren arrakastaren berri izateko. Erakusketa eta gero post-testa [ikusi 2. eranskina] pasatu da, ikusteko ze aldaketa egon den ikasleengan esku-hartzearen ostean. Tresnari dagokionez, nagusiki ikerketa kualitatibo baten aurrean gauden arren,

esan beharra dago kutsu misto bat duela aurre- eta post-testen datuak kuantitatiboki batu eta grafiko baten adierazi baitira.

2.3. Lanaren atalak

Lana 3 atal nagusitan banatzen da eta atal horiek azpiataletan banatzen dira, hurrengo taulak laburki adierazten duen bezala [ikusi 3. eranskina].

1	Datu bilketa	Behaketa	Gelako Arte Hezkuntzaren egoera zein den
		Aurre-testa	Ikasleen komunikazio gaitasuna zein den
2	Esku hartzea	Elkarrizketa: hausnarketa eragin	Gelan komunikazioari buruz eztabaidatzea
		Sinergiak sortuz: zentzumenekin esperimintatu	Usaimenak oroitzen bat sortu
		Ikusmena eta argazkia	Oroitzapen hori irudikatu
		Margolaritza	Oroitzapen horretan bizitako sentimenduak adierazi
		Museoa sortu	Lanen erakusketa bat eraiki
3	Ebaluaketa	Erakusketa	Egindako lana aurkeztu
		Post-testa	Arte Hezkuntzak komunikazio gaitasuna garatzea ahalbidetu duen

1. Taula. Esku-hartzearen faseak.

Aurrean esan bezala, lehenik eta behin laginari buruzko datuak batu dira. Prozesu hau bi pausutan eman da: behaketa eta aurre-testa. Batetik, gelako Arte Hezkuntzaren egoera zein den jakiteko behaketa asistematiko bat egin da, klaseko arte-proposamenak zer-nolakoak diren eta horiek komunikazio gaitasuna sustatzeko proposak diren ala ez ikusteko. Bestetik, komunikazioari buruzko aurre-test bat egin da ikasleen aurre-jakintzak zeintzuk diren ikusteko. Lehenengo atal hau aste batean zehar gauzatu da.

Taulan ikusi daitekeen moduan bigarren atala, 5 azpiataletan banatzen da. Azpi atal hauek, 5 saiotan egin dira eta ekintza bakoitzari gutxi gora behera ordu bat baino gehiagoko denbora eskaini zaio. Orotara, bigarren atal hau gauzatzeko 8 ordu erabili dira.

Hirugarren atalean, egindako lana plazaratu eta horren inguruan hausnartu da. Batetik erakusketa bat antolatu da. Erakusketa honen antolaketan eta gauzatzean 2 ordu erabili dira. Bestetik, proposamena bukatze aldera post-test bat egin da. Atal hau aurrera eramateko 3 ordu erabili dira.

3. Lanaren garapena

3.1. Proposamenaren justifikazioa

Behaketan zehar lortutako emaitzak hurrengoak izan dira:

- Gelan egiten diren Arte Hezkuntzako ekintzak teknika modu fidel baten barneratzeko dira, eta ondo-txarto ideiekin erlazionatzen dira, errealitatearen antzekotasunaren arabera.
- Arte Hezkuntza ez da beste gaitasun batzuk garatzeko zubi lez erabiltzen. Hau da, edertasuna helburutzat izaten da, gauza “politak” egiteko erabiltzen da alegia.

Aurre-testean lortutako emaitzak hurrengoak izan dira:

- Komunikazioa hitzak, keinuak eta irudiak medio bakarrik ematen dela uste dute ikasleek.
- Ez dira gai haien inguruan dauden ikus mezuez hausnartzeko.

Datu-bilketan zehar lortutako emaitzei erreparatuz, komunikazioaren adiera zabalago bat azalarazteko hobetzeko zerbait egin daitekeela begi bistakoa da. Aurrean aipatu bezala, lortzen bada umeak arazorik gabe komunikatzeko gai izatea, pertsona autonomoak, erabakitzaileak eta asebateak izango dira (Arranz, 2017). Horretarako hezkuntzan komunikazio indibiduala hobetzeko ahalik eta baliabide gehien eskaini behar zaizkie ikasleei, idazkera eta hizkeratik harago.

Curriculumak esaten duen bezala, Arte Hezkuntza irakasgaiak norberaren adierazpenaren garapena bultzatzeko aukera ematen du eta behaketan zehar ikusi ahal izan den bezala, arlo honi ateratako probetxua urria da. Ikasleek arte jardueretik erakusten duten interesa ordea, handia da. Ondorioz, marko teorikoan aipaturiko ideiak

eta behaketan ikusitako egoera kontuan hartuta, esku-hartze bat egitea aproposena izango litzatekeela ondorioztatu da.

3.2. Helburuak

Marko teorikoan agertu diren ideiak eta behaketan zehar ikusitakoa kontuan hartuta, lan honekin lortu nahi diren helburuak hurrengoak dira:

- Arte Hezkuntzaren bitartez material plastikoekin esperimentatzearen ondorioz komunikazio indibidual eraginkor bat garatzea.
- Arte plastikoa norbanakoaren barne-mundua adierazteko tresna gisa erabiltzea.

3.3. Esku-hartzearen prestaketa aldia

3.3.1. Jarrera pedagogikoa

Esku-hartzearekiko jarrera pedagogikoari dagokionez, ikasleen interesetan oinarritutako lan bat proposatzen da, horretarako hurrengo puntuak hartu dira kontuan:

Esku-hartzearekiko jarrera pedagogikoa	Ikasleentzat esanguratsua bihurtu.	Arte Hezkuntza eta komunikazioa lotzen duen proposamena gelan jorratzen ari diren gaiarekin lotu.
	Erakargarria egin.	Ikasleentzat entretenigarriak eta haien gustukoak diren ekintzekin lan egin.
	Ikasleei prozesua erraztu.	Haien mailara egokitutako azalpenak prestatu, ekintza guztiak azaldu eta orientazioa eskaini.

2. Taula. Esku-hartzearen jarrera pedagogikoa.

Bertan, behaketen ondoriotatik abiatuta norberaren komunikazio gaitasuna eta arte plastikoak uztartzeko hainbat saio diseinatu dira, bata bestearen giltza direnak.

3.3.2. Esku-hartzearen faseak

- **Diseinuaren oinarriak**

Proposamenaren diseinua aurrera eramateko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak argitaratutako Oinarrizko Hezkuntzarako Curriculumak

proposatutako arte konpetentzia garatzeko osagaiak ere aintzat hartu dira. Hala nola, “Hizkuntza artistikoak komunikazio-bide eta espresio-bide unibertsaltzat hartzeko gai izatea, eta hizkuntza horiek modu arrazoituan erabiliz egitea bere arte-ekoizpenak” eta “Bere arte-ekoizpenetan irudimenez eta ekimenez jokatzeko bere ideien, sentimenduen eta bizipenen berri emateko”.

Ondoren, Lehen Hezkuntzako Gradu bigarren mailan izandako Arteen eta Ikusizko Kulturaren Hezkuntza irakasgaiaren burututako proiektu bat abiapuntutzat hartuta eta Ventósek (2015) *olorVISUAL* izeneko arte erakusketatik hartutako ideiez baliatuz gauzatu da esku-hartzea. Baita Marcelek (2015) egindako sinestesiaren inguruko ariketa batez, Quintanilla del Riok (2017) sortutako apunteekin batera.

Ikasgelako egoera aztertuta, laginaren komunikazio gaitasun maila ezagututa, hau garatzearen beharra ikusita eta Arte Hezkuntza lantzearen onurak ezagututa, esku-hartzea martxan jarri da. Esku-hartzea marko teorikoan aipaturiko autoreen ideietan eta lortu nahi diren helburuetan oinarrituz diseinatu da. Proiektu hau ikasleentzat erakargarria egiteko asmoz, ekintza txiki ezberdinekin lan egitea pentsatu da, haien egunerokotasunean txertatu ahal izateko, batetik bestera igaroz prozesu osoan zehar. Bertan, bi fase ezberdindu dezakegu:

- **Barne mundua eta komunikazioa Arte Hezkuntzaren bitartez**

Atal honetan norbanakoaren komunikazioa eta praktika artistikoa uztartu nahi izan dira, horretarako hiru ekintza egin dira [ikusi 4. eranskina].

Lehenengo, Marko Teorikoan aipaturiko sinergiaren kontzeptuarekin lotuta, usaindun poltsekin lan egitea erabaki da. Gaiari dagokionez, ikasgelan landutako azken proiektuarekin (Haurtzaroa) lotura bilatu nahi zaio ikasleentzat esanguratsuagoa izateko, beraz horren inguruko oroitzapenak eragin ditzaketan usaindun lau elementu bilatu dira esku-hartzerako. Gelako distribuzioa taldekakoa denez, lau pertsonetako taldeena hain zuzen ere, lau elementu ezberdin egotea pentsatu da talde bakoitzean lan ezberdinak ikusteko. Ekintza honek haien zentzumenekin lan egingo du, usaina estimulu bisualarekin lotuz hurrengo pausua emateko behar den informazioa sortarazteko, hau ikasle bakoitzean ezberdina izanik.

Bigarrenenez, lortutako informazioarekin, hots, usain bakoitzak burura ekarritako oroitzapenarekin, eskolako orduetatik kanpo, norberak askatasunez aukeratutako argazkiak aterako ditu momentu horiek irudikatzeko asmoz.

Hirugarrenenez, argazkiaren gainean margotzea proposatzen da usainmenak eta bakoitzak aukeratutako irudiek sortzen dituzten pertzepzio pertsonalak indartzeko nahiarekin. Horretarako, trazu abstraktuez baliatuko dira momentu horretan bizitako sentimenduak eta emozioak adierazteko. Azkenik, usainmen poltsak eragindako oroitzapenetan agertutako momentua eta zentzazioak erakusten duen artelan bat garatzea izango da haien erronka. Lan hau aurrera eramanez ahal izateko jarraibideak eta azalpenak eman zaizkie pausu bakoitza eman baino lehen. Azkeneko emaitza, haien oroitzapenen ikusizko adierazpen izango da, bakoitzaren adierazpen gaitasuna erakutsiz.

Ekintza guzti hauen kalitatea hobetzeko eta ikasleei batetik besterako aldaketa errazteko orientazioa eskaintzea garrantzitsutzat hartu da. Horretarako, orientazio-fitxa bat diseinatu da [ikus 5. eranskina]. Fitxa hau ikasle bakoitzarentzat gida bat izateko diseinatu da, esperimentazioa bultzatzeko baliabide gisa eta ekintzak egin ahala apunteak hartzerantz animatzeko. Fitxa hau ikasleak galduta sentitzerakoan atzera bueltatzeko aukera izateko, emandako pausuak gogoratzeko eta emaitza esanguratsuak lortzeko jarraitu beharreko urratsak ezagutzeko helburua ere badauka.

- **Barne komunikazioaren hitzezko transmisioa Arte Hezkuntzaren bitartez**

Atal honetan erabaki batzuk amankomunean hartuko dira, lanak denon artean ikusgai jarriko dira eta barne-mundu hori kanporatzen saiatuko dira ikasleak.

Prozesu honetan lanak aurkezteko modurik aproposenez eztabaidatuko da eta hura aurrera eramango da zentroko arauak errespetatuz. Azkenik, ikasle bakoitzak bere lana ahoz aurkeztuko du beste guztien artean emaitza hori lortzeko emandako urrats guztiak azalduz.

3.4. Esku-hartzearen gauzatze aldia

Behin pausu guztiak finkatuta daudela eta esku-hartzea gauzatzeko prest dagoela, umeen ordutegia moldatu da ekintza honek haien egunerokotasunean txertatzeko.

Aurrean esan bezala, esku hartzea bi fase nagusitan sailkatu da eta fase horrek, aldi berean, azpifase txikiagoetan.

- **Barne mundua eta komunikazioa Arte Hezkuntzaren bitartez**

- Elkarrizketa: hausnarketa eraginez

Lehenik eta behin, gaiari sartzeko komunikazioaren inguruan hitz egin da. Horren inguruan dakitenagatik galdetu zaie gaiaren inguruan eztabaida sortzeko: Zer da komunikazioa? Zertarako komunikatzen gara? Komunikatzeko modu ezberdinak daude?. Hainbat egoera proiektatu dira arbelean bertoko komunikazioa zelakoa den eztabaidatzeko. Argazkiak jarraituz komunikatzeko era ezberdinen zerrenda bat egin da, hurrengo ekintzak biltzen dituena: hitz egitea, idaztea, keinuak egitea eta irudiak marraztea. Orduan hurrengo galdera sortu da: Zerrendako elementuak alde batera utzita, komunikazioa bukatzen da? Ez da erantzunik egon zuhaitz baten argazkia erakutsi zaien arte [ikus 6. eranskina]. Zuhaitz horrek zuri eta gorri koloretako hiru marra margotuta ditu enborrean. Hori ikusita denek ohartu dira zuhaitz horren ikurrak, hizkuntza bisualaren bitartez, basoko bide egokia zein den komunikatzen ari dela.

- Sinergiak sortuz: zentzumenekin esperimentatuz

Komunikazioaren inguruan mintzatu ostean, talde bakoitzeko kideari 1etik 4rako zenbaki bat aukeratzeko eskatu zaio eta jarraian zenbaki hori zeraman poltsa hurreratu zaio usaintzeko zenbaki bereko kideari. Usaintzerakoan begiak estali dituzte (poltsa barruan zegoena ez ikusteko) eta isilik egoteko araua ezarri da besteen esperientzietan ez eragiteko helburuarekin. Poltsako elementua usaintzerakoan, haien lekuetara bueltatu behar dira burura etorritako guztia idazteko, aurrerago gogoratu ahal izateko. Horretarako orientazio-fitxaren lehenengo bi galderak erantzuteko gomendioa eman zaie. Batetik, burura etorritako oroitzapena idaztea eta bestetik, oroitzapen horretan bizitako sententziak eta sentimenduak zeintzuk diren identifikatzea.

- Ikusmena eta argazkia

Aurretik ikusitako usainmenek haien oroitzapenetara eraman diete, beraz, usainmenaren ideia hori hartuz, bakoitzaren oroitzapenetara jotzeko nahi bat ezarri da eta horretarako argazki bat ateratzeko esan zaie. Argazki hori ateratzeko asteburu bat eman zaie eta emailer bidaltzeko eskatu. Denak jasota, zuri-beltzera pasatu dira eta DIN A4ko orri

zurietan inprimatu dira. Horrela, aurrerago, haien irizpideak jarraitzen dituzten koloreak erabiliko dute, argazkian agertzen direnei erreparatu gabe.

- Margolaritza

Ondoren, trazuen inguruan hitz egin da gelan, bakoitzak erakutsi nahi duenari erreparatuz eta horrek daukan koloreen inguruan hausnartuz. Azken honetan ez da erantzunik okertzat eman, bakoitzari forma eta kolore batek zentzazio ezberdin bat sorrarazten diolako. Argazkian zuzenean lan egin baino lehen, askatasunez materiala frogatzeko aukera izan dute horretara bideratutako orientazio-fitxan. Izan ere, materiala aurretik frogatuz, hura erabiltzeko beldurra kentzen dute eta askatasun handiagoarekin jarduten dute.

Horren ostean, bakoitzari bere argazkia banatu zaio inprimatuta eta aurretiaz frogatutako trazuak argazkira eramateko eskatu zaie. Horretarako, 12 kolore ezberdinerako *Dacs* argizariak erabili dituzte.

- **Barne komunikazioaren hitzezko transmisioa Arte Hezkuntzaren bitartez**

- Museoa prestatu

Margotzen bukatu ostean eta besteei helarazteko nahiarekin, artelanak esposatzeko azken itxurari buruzko eztabaida sortu da gelan. Eztabaida horretan, marko baten beharra azpimarratu da, baita erakusketa bat antolatzearena eta izenburuak jartzearena ere. Horretarako, kartoi mehe beltzak hartu dira eta argazkien atzetik itsatsi dira marko gisa. Ondoren, 7zm x 15zm-ko kartoi mehe zuriak moztu dira kide bakoitzak bere artelanaren izenburua eta azalpen labur bat idazteko. Azkenik, gela bakoitzak erakusketak egiteko daukan korridoreko panelean itsatsi dira lan guztiak [ikusi 7. eranskina].

- Erakusketa

Behin erakusketa antolatuta, aurkezpenak egiteko data finkatu da eta ikasleek proposatutako beste irakasle batzuei hurbiltzeko eskatu zaie, haiei ere gelan egindako lana erakutsi nahi dietelako. Erakusketa egunean, haur bakoitzak bere artelanaren alboan jarrita izandako oroitzapena eta sentitutakoa azaldu du, ateratako argazkiarekin eta erabilitako trazu eta koloreen arrazoiekin lotuz. Ume guztiek ez dute haien lana

aurkeztu, lotsa dela eta, ez dute besteen aurrean hitz egin nahi beraz ez dira horretara behartuak izan.

4. Emaitzak

Arte-lanen erakusketa amaitu ondoren, gelara berriro sartu eta bizitako esperientziaz hitz egin da. Ikasleei, haien iritzia eskatu zaie jardueraren inguruan, baita zer uste duten ikasi dutela horri esker. Iritzi guztiak entzuteko aukera egon da eta orokorrean, sentsazio positiboa transmititu dute ikasleak. Bukatzeko, behaketa-aldian betetako komunikazioaren inguruko testa bete dute berriro, post-testa hain zuzen ere, oraingoan gogotsuago, erantzun gehiago eta sakonagoak emateko gai direlako. Esan beharra dago ikasleek ez dutela haien izena erabili aurre- eta post-testetan. Haien lasaiago sentitzeko asmoz, azterketa baten presioa alde batera uzteko, animalia bat egokitu zaio bakoitzari eta hura irudikatu dute bi testetan.

Prozesu osoan zehar jasotako emaitzak bi multzotan sailkatuak izan dira: batetik, alde aurretik ezarritako lehenengo helburuari dagokienak eta bestetik, bigarrenari dagokienak.

- **Lehenengo helburuari dagokien emaitzak: Arte Hezkuntzaren bitartez material plastikoekin esperimentatzearen ondorioz komunikazio indibidual eraginkor bat garatzea.**

Emaitza honek, alde batetik, esku-hartzean zehar egindako ekintzen behaketan ateratako ondorioetan oinarrituko dira, eta bestetik, arte-lan bukatuak aurkezterakoan.

Esku-hartzean zehar hainbat ekintza egin dira eta ekintza horren arrakasta bermatzeko eta ikasleen esperimentazioa bultzatzeko asmoz, orientazio fitxa diseinatu da. Fitxa hau ikasle bakoitzaren alboa egon da momentu oro, honek hura erabili ahal izateko behar izanez gero. Gauzak honela, bi aspektu azpimarratu behar dira. Batetik, ikasleak prozesu guztian zehar fitxa hori erabili izana esperimentatzen jarraitzeko. Izan ere, esku-hartzean zehar ikusi ahal izan da nola ikasle bakoitzak buruan zeukana plastikoki irudikatzeko orri hori erabiltzen zuen, bertan utzitako espazioak ideia eta kontzeptu ezberdinez betez. Bestetik, prozesu amaieran, erabilitako fitxa hori behatzerakoan, ikusitako ikasle bakoitzaren hausnarketa eta eboluzio-prozesua. Hasieran, askok,

edertasun estetikoaz baino ez zeuden arduratuta eta fitxetan ikusi ahal izan da hortik aldendu direla eta barruan zeukatena ateratzen saiatu direla [ikusi 8. eranskina]. Baita materialarekin esperimentatzen ere. Hasieran ikusi daiteke kontu handiz jardun dutela argizariekin, baina amaieran, margotzeko beste forma batzuk frogatzen ibili direla [ikusi 9. eranskina]. Beraz, orientazio-fitxei erreparatuz, esan dezakegu material plastikoekin esperimentatzearen ondorioz komunikazio indibidual eraginkor bat garatu dela.

Horretaz aparte, helburu hau bete dela esan ahal izateko esku-hartzearen amaieran aurkeztutako erakusketa hartu daiteke erreferentzi lez. Bertan, ikasle bakoitzak egindako arte-lana erakutsi du, emaitza horretara heltzeko emandako pausuak azalduz eta pausu horren zergatia argudiatuz. Oro har, ikasleek komunikazio indibidual eraginkorra erakutsi dute, gai izan direlako haien barruan daukaten guztia kanporatzeko. Adibidez, ikasle batek, gaixo zegoenean sentidutako zorabioa azaltzeko, borobilak eta espiralak erabili izana justifikatu du eta horretarako *gotikaren* koloreak erabiltzea erabaki duela esan du momentu horretako nazkagarrikeria adierazteko. Komunikazio eraginkor hau ikusi daiteke ere beti isilik eta hitz egin barik dabilen ume batek erakusketan izandako parte-hartze aktiboan, izan ere, ume honek azaldu zuen txikitan egongelako gortinak *ColaCao*-z zikindu izana eta momentu horretan sentitutako erruduntasun sentimendua. Gainera, hori guztia kanporatzerakoan arte plastikoak erabilia, esan daiteke Arte Hezkuntzaren bidez material plastikoekin esperimentatzearen ondorioz komunikazio indibidual eraginkor bat garatu dutela. Hobekuntza honek, ikasleen esperientzia artistikoaren ondorioz lortu ahal izan dira.

- **Bigarren helburuari dagokien emaitzak: arte plastikoa norbanakoaren barne-mundua adierazteko tresna gisa erabiltzea.**

Emaitza hauetarako bi irizpide kontuan hartu dira: erakusketan zehar behatutako arte-lanen azken itxura eta aurre-testaren ondoren egindako post-testaren emaitzak.

Behin erakusketa amaituta, haiek egindako artelanei erreparatuz [ikusi 10. eranskina], esan beharra dago oso lan txukunak lortu direla orokorrean. Argazkiek haien oroitzapenaren testuingurua adierazten dute eta trazuekin sortutako irudiak zentzazio edo emozioak ahalbidetzen dituzte. Egiazko irudiak dira eta estereotipoetatik aldentzen dira, hau da, oso lan pertsonalak eta errepika-ezinak dira. Hori dela eta, ondorioztatu

dezakegu argazkilaritzak eta margolaritzak norbanakoaren barne-mundua adierazteko tresna egokiak izan direla.

Arte-lanak alde batera utzita, behaketan eta prozesu amaieran egindako testetan [ikusi 11. eranskina] jasotako emaitzetan oinarriturik, ikasleak artea komunikatzeko tresna gisa onartu dutela ikusi daiteke. Izan ere, aurre-testetan ikasle batek ere ez zuen artea komunikazio errekurtsio lez aipatu eta post-testean, ordea, klase erdiak baino gehiagok idatzi du. Gainera, testetan jasotako emaitzetan ikusi daiteke ere, ikasleak gero eta jakitunagoak direla bisualki jasotzen dituzten informazioaz eta honek dituen komunikazio-helburuez. Hau esateko, testaren azkeneko jardueran oinarritu naiz. Bertan, hainbat irudi agertzen zaizkie ikasleei haiek seinatzeko zeinetan komunikazioa ematen ari den eta lortutako emaitzak erakusten dute hobekuntza handia egon dela esku-hartzean zehar [ikusi 12. eranskina]. Begi bistakoa da arlo honetan egon den hobekuntza, izan ere, ikasle guztiek komunikazio-ekintzaren bat gehiago markatu dute esku-hartzea bukatu ondoren. Ondorioz, ikasleak ohartu dira arte plastikoak norberaren barne-mundua adierazteko tresna egokia dela.

Azkenik, esan beharra dago, orokorrean, ikasle guztiek oso inplikaturik ibili direla esku-hartzean, parte hartzea oso altua izan da eta gogotsu egin dute lan. Hain motibatuta ibili dira non, amaitzerakoan, ikasle batzuk Aste Santuko oporretan zehar haietzako beste proiektu bat diseinatzeko eskatu didate, oporretatik bueltan gelan egin ahal izateko. Honek erakutsi du ikasleek haien barne-mundua komunikatzeko duten nahia eta beharra, baita hau egiteko Hezkuntza Formalean eskaintzen diren aukera urriak. Erakutsi du ere komunikazio hori gauzatzeko artea erabiliz eroso sentitzen direla eta komunikazio-errekurtsio bat gehiago lez hartu nahi dutela.

Laburbilduz, esku-hartze honetan proposatutako ekintzekin aldez aurretik ezarritako helburuak bete dira, horrela, Arte Hezkuntzak komunikazio gaitasuna garatzeko duen baliagarritasuna erakutsi da.

5. Ondorioak

Gradu Amaierako Lan honi esker, hain garrantzitsua den gai baten inguruan lan egin ahal izan dut, komunikazio gaitasun indibiduala. Hau, Hezkuntza Formalean hain urria

den Arte Hezkuntzaz baliatuz garatzeko aukera izan dut. Esku hartzeari esker, ezagutza asko barneratu ahal izan ditut, bai prestakuntza-aldian autore askoren lana aztertuta bai gauzatze-aldian ikasleengatik ikasitakoarekin.

Ez da erraza izan komunikazioaren gaia umeeekin jorratzea era guztiz ezberdin batean, hau da, hitza lehenetsi gabe. Hala ere, jasotako emaitzek baieztatu dezakete esku-hartzearen ondorioak esanguratsuak izan direla jarraian nabarmentzen diren hiru ondorioetan.

Lehenengoz, ondorioztatu dezakegu material plastikoekin esperimentatzen hezkuntzan oinarritzekoak diren komunikazio-gaitasunak barneratu daitezkeela. Emaitzetan ikusi ahal izan den bezala, ikasleak gai izan dira nolabaiteko sententzia abstraktuek baliatuz komunikatzeko eta haien ideiak plazaratzeko. Horrenbestez, artea ez dela soilik apaingarri lez erabiltzen ikusi dute eta horretaz baliatu ahal direla munduarekin komunikatzeko.

Bigarrenaz, erakusketa egiteak erakutsi dituen emaitza esanguratsuek, lana erakutsi eta bakoitzaren ideiak konpartitzeko espazioak izatearen garrantzia azpimarratzen du. Hortaz, ondorioztatu dezakegu lana ikustaraztea eta besteekin elkarbanatzea erreminta esanguratsua dela eta honetan jarraitu behar dela komunikazio-gaitasun horretan aurrera egiteko.

Azkenik, ondorio lez aipatu dezakegu, arte adierazpen ezberdinak elkar erlazionatzea, sinergia kontzeptu aberats bat izan dela pertsona bakoitza bere osotasunean adierazi ahal izateko, bakoitzak ildo ezberdin batetik aberastuz kontzeptu zehatz bat, hain zuzen. Horrela, bakoitzak errepresentazio pertsonala erakusteko aukera izan du, bere barne munduaren errepresentazioaren isla.

Lan honek ikasleen barne adierazpena hobetzeko zeukan helburua bete du hezkuntza formalean arteak eskura duen baliabide plastikoekin esperimentatuz.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Abad, J. (2009). Usos y funciones de las artes en la educación y el desarrollo humano. L. Jiménez, I. Aguirre, & L.G. Pimentel-en (Eds.), *Educación artística, cultura y ciudadanía* (pp. 17-23). Organización de Estados Iberoamericanos para la Educación, la Ciencia y la Cultura. Madrid: Fundación Santillana. Hemendik hartua: <http://www.oei.es/historico/noticias/spip.php?article9239>
- Acaso, M. (2009). *La educación artística no son manualidades: nuevas prácticas en la enseñanza de las artes y la cultura visual*. Madrid: La Catarata.
- Aguirre, I. (1998). *La educación artística como construcción identitaria del sujeto. Arte y sentimiento en la crisis del academicismo*. III Jornades d'història de l'educació artística: Universitat de Barcelona.
- Arranz, A. (2017). Competencias Comunicativas: qué son y cómo mejorarlas. *CogniFit: salud, cerebro y neurociencia*. 2017/11/11an hartua, hemendik: <https://blog.cognifit.com/es/competencias-comunicativas-consejos/>
- Arrizabalaga, A & Revuelta, A. (2010). Adierazpen artistikoa Hezkuntzan. *Hik Hasi*, 150, 6-11.
- Bajac, A.M. (2017). El Museo Escolar como entorno inclusivo para la Educación Artística. *EARI: educación artística, revista de investigación*, 8, 032-046. 2018/03/20an hartua, hemendik: <https://dx.doi.org/10.7203/eari.8.10045>
- Bisquert Santiago, A. (1977). *Las artes plásticas en la escuela: breviarios de educación*. Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia.
- Cueto Zayas, G. (2011). El Hombre y la Comunicación. *EF Deportes.com Revista Digital*, 16, 163, Z.G. 2018/01/09an hartua, hemendik: <http://www.efdeportes.com/efd163/el-hombre-y-la-comunicacion.htm>
- Galarraga, A. (2016). Sinestesia: berezko errealitate areagotua. *Elhuyar Zientzia eta Teknologia*, 322, 28-31.
- García-Huidobro, R. (2017). El lugar del no saber en la enseñanza de las artes visuales. *EARI: educación artística, revista de investigación*, 8, 105-119. 2018/03/20an hartua, hemendik: <https://dx.doi.org/10.7203/eari.8.9272>
- Hezkuntza Saila, (2017). *Ikasketen egitura eta planteamendua: ikasturtearen antolaketa ikastetxe publikoetan*. Eusko Jaurlaritz/Gobierno Vasco: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. 2017/12/05an hartua, hemendik: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/dic1/eu_2041/organizacion.html
- Hezkuntza Saila, (2016). *Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum*. Eusko Jaurlaritz/Gobierno Vasco: Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura Saila. 2018/03/30an hartua, hemendik: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_oso.pdf
- Hymes, D.H. (1996). Acerca de la competencia comunicativa. *Forma y Función*, 9, 13-37. 2018/03/03an hartua, hemendik: [bdigital datu-basetik eskuratuta](#).
- Jorge, E. (2017). *Natura, hezkuntza baliabidea: Haur Hezkuntzako proposamen didaktiko bati erantzun ezberdinak* (Gradu amaierako lana). Euskal Herriko Unibertsitatea (Bilboko Hezkuntza Fakultatea).
- Larrea, I. (2016). Artea Lehen Hezkuntzan. *Hik hasi* 210, 34-35. 2018/01/20an hartua, hemendik: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20160701/arte-lehen-hezkuntzan>
- Marcel, J. (2015). *Ejercicio Sinestesia 4*. 2018/03/03 hartua, hemendik: <https://www.youtube.com/watch?v=cgowZ3blwbw> tik lortua.


- Obergozo, T. (2010). Adierazpen artistikoa hezkuntzan. *Hik Hasi*, 150, 10. 2018/04/12an hartua, hemendik: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20100701/adierazpen-artistikoa-hezkuntzan>
- Quintanilla del Río, G. (2017). El punto y la línea como signo de expresión. *Área de dibujo: educación plástica y visual*. 2018/03/04an hartua, hemendik: <http://areadedibujio.es/documentos/1-eso/1eso-linea.pdf> tik lortua.
- Salas, J. (2015). *Sinestesia y arte: hacia la autoinvestigación creativa* (Tesis doctoral). Universidad de Granada (Facultad de Bellas Artes). 2018/05/18an hartua, hemendik: <https://hera.ugr.es/tesisugr/25934922.pdf>
- Sánchez Cuevas, G. (2015). La importancia de una buena comunicación. *La mente es maravillosa: psicología*. 2017/12/18an hartua, hemendik: <https://lamenteesmaravillosa.com/la-importancia-de-una-buena-comunicacion/>
- Sarabia, C. (2016). *Sinestesia: cuando flipar en colores es posible*. 2018/03/05ean hartua, hemendik: <https://www.youtube.com/watch?v=ImAQK9ObUoU> tik lortua.
- Savater, F. (1997). *Política para Amador*. Barcelona: Ariel editoriala.
- Perales, J. (2004). Gaitasun komunikatiboa ebaluatzen: mintzamina eta idazmina. *Hizpide*, 56, 21-40. 2018/01/22an hartua, hemendik: http://www.ikasten.ikasbil.eus/pluginfile.php/1945003/mod_habecms/doc_attachment_eu/262/04-Ikerketa-PERALES.pdf
- Pérez-Bermúdez, C., Rodríguez, L., Segurado, B. & Valero, A. (1997). El arte como argumento educativo. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 1 (0) 2-3. 2017/11/07an hartua, hemendik: <http://www.uva.es/aufop/publica/actas/viii/edmuspla.htm>
- Ros, N. (2017). El lenguaje artístico, la educación y la creación. *Revista Iberoamericana de Educación*, 75, (1) número especial. 2018/01/14an hartua, hemendik: <https://rieoei.org/RIE/issue/view/112/vol.%2075%20n%C3%BAm.%201>
- Ventós, E. (2015). *Canal Cultura (Ministerio de Educación, Cultura y Deporte), Sinestesia. Colección olorVISUAL*. 2018/03/07an hartua, hemendik: https://www.youtube.com/watch?v=5a9fg_x1YAs tik lortua.
- Vera Verján, B.L. (2000). El arte: factor determinante en el proceso educativo. *Educación*, 15, 56-65. 2018/02/01ean hartua, hemendik: <http://educar.jalisco.gob.mx/15/15vera.html>
- Wilson, E.O. (1975). *Sociobiology: the new synthesis*. Cambridge: Harvard University Press.

ERANSKINAK

1. eranskina: aurre-testa

Data: _____

Ikaslea:



KOMUNIKAZIOA

Zer da komunikazioa?

Nola komunikatzen naiz?

Nola sentitzen naiz komunikatzeko gai ez naizenean?


Markatu komunikatzeko moduak direnak:



2. eranskina: post-testa

Data: _____

Ikaslea:



KOMUNIKAZIOA

Zer da komunikazioa?

Nola komunikatzen naiz?

Markatu komunikatzeko moduak direnak:



Nola sentitzen naiz orain komunikatzeko errekurtso gehiago ditudala?

3. eranskina: esku-hartzearen kronograma

EKINTZAK			SAIOAK												
			1.		2.		3.		4.		5.		6.		
			ORDUAK												
			1	2	1	2	1	2	1	2	1	2	1	2	
Datu-bilketa	Behaketa														
	Aurre-testa														
Esku-hartzea	Barne-komunikazioa	Elkarrizketa													
		Sinergiak sortuz													
		Argazkilaritza													
		Margolaritza													
	Barne komunikazioaren hitzezko transmisioa	Museoa prestatu													
		Lanak aurkeztu													
Ebaluaketa	Erakusketa														
	Post-testa														

3. Taula. Esku-hartzearen kronograma.

4. eranskina: ariketen fitxak

1. ARIKETA			
Lekua		Materiala	
Non:	Nola:	Ikastolan:	Etiket:
Ikasgela eta korridorea.	Lauko taldetan eserita.	Arkatzak eta borragomak.	Orientazio-fitxak, lau poltsa urdinak 1etik 4rako zenbakiekin eta barruan: ColaCao, mantzanila, eguzki krema eta tea.
Prozedura:			Denbora:
<ol style="list-style-type: none"> 1. Umeak lauko taldeetan eserita egon ondoren 1etik 4rako zenbakiak banatzeko eskatuko zaie, baita horrek ez ahazteko ere. 2. Usainmen poltsak aurkeztuko zaie ikasleei (barruan dagoena ikusten utzi barik) eta azaldu egingo zaie bakoitzak begiak itxita bere zenbakia daraman poltsa usainduko duela. Jarraian, usainmen horrek ekarritako oroitzapena idatzi beharko dutela orientazio-fitxan, horretaz ez ahazteko. 3. Prozedura osoa azaldu ondoren, ikasleak, zenbakika, korridorera irtengo dira eta bertan, begiak itxita, irakasleak haien zenbakia daraman poltsa hurreratuko die usaintzeko. Behar bezain beste alditan usaindu ahalko dute poltsa. Talde batekin amaitzerakoan, klasera sartuko dira idaztera eta hurrengo taldea aterako da. Prozesu berdina jarraituko da lau taldeekin. 4. Behin denek egokitutako usain-poltsa usainduta eta horrek eragindako oroitzapena idatzita edukita, oroitzapen horren momentuan bizitako sentimenduak eta sentsazioak hautemateko eta jarraian idazteko eskatuko zaie. 			<p>5'</p> <p>10'</p> <p>25'</p> <p>15'</p>

4. Taula. Lehenengo ariketa.

2. ARIKETA			
Lekua		Materiala	
Non:	Nola:	Ikastolan:	Etxetik:
Ikasgelan eta etxean.	Banaka nahi duten lekuan.	iPad-ak, fotokopiagailua eta orriak.	
Prozedura:			Denbora:
<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleei haien oroitzapenari buruz idatzitakoa berriro irakurtzeko eskatuko zaie, aurrekoan idatzitakoa gogoratzeko asmoz. 2. Haiek idatzitakoa jarraituz, momentu hori haien buruetan irudikatzeko eskatuko zaie. Begiak itxita, bizipen hori gogorarazi beharko dute haien buruetan. 3. iPad-ak hartzeko eskatuko zaie jarraian eta haien buruan irudikatuko momentua irudikatzen duen argazki bat ateratzeko eskatuko zaie. 4. Hasieran, ikastolan denbora emango zaie kamara frogatzeko, argazki batzuk ateratzeko eta pentsatzen joateko zer-nolako argazki mota egin nahiko duten. 5. Azkenik, bakoitzak etxean argazki definitiboa aterako du eta klasera eramango du hurrengo egunerako. 			5' 10' 5' 25' ---
Hurrengo egunerako:			
Bakoitzak bere oroitzapena irudikatzen duen argazki bat ekarriko du.			

5. Taula. Bigarren ariketa.

3. ARIKETA			
Lekua		Materiala	
Non:	Nola:	Ikastolan:	Etxetik:
Ikasgelan.	Bakoitza erosoan lan egiten duen lekuan.	Argizari kaxa bat lau pertsonetikiko, argazkiak zuri-beltzean inprimatuta, kartoi mehe beltza eta zuria.	
Prozedura:			Denbora:
<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasle bakoitzari bere argazkia inprimatuta emango zaio, baita koloreetako argizariak ere. 2. Material guztia edukita, eman beharreko hurrengo urratsa azalduko zaie: argizariak erabilia, argazkiak irudikatzen duen momentu horretan bizitako sentimenduak eta sentsazioak margotzea argazkiaren gainean. Horretarako, ezin izango dira irudi edo marrazkiez baliatu, trazu abstraktuez baizik. 3. Margotzearekin amaitu eta gero, bakoitzak izenburu bat jarriko deuta bere lanari eta kartoi mehe zurian idatziko du. 4. Kartoi mehe beltza argazkia gainean itsasteko da, eman beharreko azken urratsa, hain zuzen ere. 			<p>5'</p> <p>20'</p> <p>10'</p> <p>10'</p>

6. Taula. Hirugarren ariketa.


5. eranskina: orientazio-fitxa

Ikaslea


1. Hau usaintzerakoan, zer da burura etortzen zaidan lehenengo oroitzapena?

2. Aurrean kontatutako pasartean, zelan sentitzen nintzen? Edo, zelan sentitzen naiz hau gogoratzerakoan?

3. Materiala frogatzeko gunea



4. Zirriborroak egiteko gunea.



6. eranskina: GR kodigodun zuhaitz enborra



1. Irudia. GR kodigodun zuhaitza

7. eranskina: erakusketaren argazkiak



2. Irudia. Erakusketa eskuman.



3. Irudia. Erakusketa ezkerrean.



4. Irudia. Erakusketa behean.

8. eranskina: trazuak frogatuz




5. Irudia. Amorrúa.



6. Irudia. Erruduntasuna.

9. eranskina: materiala frogatuz



7. Irudia. Haserrea.




8. Irudia. Alaitasuna.

10. eranskina: artelanen argazkiak



9. Irudia. ColaCao-a gortinetan.



10. Irudia. Lasai belarrean.



11. Irudia. Gaixorik.

11. eranskina: testen erantzunak

Zer da komunikazioa?

Hitzegiteko modu bat.

12. Irudia. Tigre ikaslearen aurre-testa.

Zer da komunikazioa?

Komunikazioa da gauza bat beste bati azaldu nahi dozu eta bestea lotu badau ulertzen. hori da komunikazioa

Nola komunikatzen naiz?

13. Irudia. Tigre ikaslearen post-testa.

Nola komunikatzen naiz?

telefonoz, itzegite, esaten, ikurten


14. Irudia. Elefante ikaslearen aurre-testa.

Nola komunikatzen naiz?

Kolorekin, zenekin, Abesten, berba egiten, idasten, maraskiekin, kamisetekin.

15. Irudia. Elefante ikaslearen post-testa.

12. eranskina: testen emaitzen grafikoa



1. Grafikoa. Aurre- eta post-testen konparaketa azkeneko jarduera kontuan harturik.